

LAZKAOKO PLAZA

UDAL ALDIZKARIA

LZKO

6

2010eko maiatza



LAZKAOKO UDALA



Helduen danborrada, estreinaldi arrakastatsua



Igerileku estaligabea prest • Santa Madalena plaza eta garaje berriak • Lazkao konpostaren alde bosgarren edukiontziaekin • Harpidetu gure buletinera!

2	Iritzia
2-3-4	Festak
5	Igerilekuak
6-7-8	Hirigintza
9	Industria
10-11	Ingurumena

(Udaletxetik)

San Prudentzioak, jai giro ezin hobean

Amaitu dira jada aurtengo San Prudentzioak. Orain balantzea egitea suertatzen da eta oso positiboa izan dela nabarmendu beharra dago. Ekitaldi guztiak oso ongi joan dira eta berriro ere, lazkaotarrek herriari festa giroa emateko duzuen bertute hori islatu duzue egun hauetan. Ezinbesteko zait parte hartzailei

eta antolatzen lagundu duten guztiei eskerrak ematea, beraiek gabe ezinezkoa izango litza-teke-eta horrelako San Prudentzio biribila egitea. Lehenengo astean eguraldia lagun izan



Xanet Barreras
Kirol eta Gazteria
saileko zinegotzia

genuen eta azken asteburuan apur bat okertu bazen ere, jai giroa ez zen falta izan gure kaletan. Urtero lez, bai lazkaotarrek bai bisitariek primeran pasatu dute egun hauetan, eta horixe da guri festak antolatzeke garaian motibazioa eta indarra ematen diguna. Festak zuentzat dira eta. Horregatik, gaur bertan lanari ekingo diogu datorren urteko San Prudentzio jaiak are eta

gehiago hobetzearren. Berriz ere, mila esker gure herriarentzat horren seinalatuak diren egun hauetan parte hartu duzuen guztioi. Gora San Prudentzioak!



Egun batez danborrari



Sandra Plasencia

Parte-hartzailea

“Oso ongi atera da dena. Merezki izan du entseguetan orduak emateak. Oso gustura ibili naiz. Gainera, herriaren babesa izan dugu une oro eta espero baino jende gehiago izan da danborrada ikusten”.



Elena Oria

Participante

“Ha sido muy emocionante. Al principio estábamos nerviosos, creíamos que no habría mucha gente y resulta que estaba todo el pueblo. Tras el acto, la gente nos ha felicitado por la calle y eso siempre se agradece. En definitiva, ha sido una experiencia muy positiva. Si puedo repetiré el año que viene. Creo que nos hemos ganado la plaza para el año que viene”.

OHARRAK BIDALTZEKO AVISOS



LAZKAOKO UDALA
Euskadi Plaza,
LAZKAO



Tel.: 943 08 80 80



e-maila:
udala@lazkao.net

www.lazkao.net





Helduek ere, danbor hotsez kaleak alaitu zituzten

LA INICIATIVA POPULAR DE CREAR UNA TAMBORRADA DE ADULTOS SE HIZO REALIDAD EL PASADO DÍA 27 DE ABRIL CUANDO LA TAMBORRADA DE ADULTOS SALIÓ, CON SUS BARRILES Y TAMBORES EN MANO, A AMENIZAR LAS CALLES LAZKAOTARRAS. LA PRIMERA EDICIÓN RESULTO TODO UN ÉXITO, TENIENDO EN CUENTA LA GRAN AFLUENCIA DE PÚBLICO CONCENTRADA EN LA PLAZA Y LA MÁS QUE APLAUDIBLE ACTUACIÓN DE LOS PARTICIPANTES.

Lazkao danbor hotsez jantzi zen bi aldiz San Prudentzioetan. Izan ere, gaztetxoek ez ezik, helduek ere beren trebezia erakutsi zuten estreinakoz. Ia bi hilabetez entseatzen aritu ostean, egun handia iritsi zen beraiantzat. 150 bat lazkaotarrek hartu zuten parte danborradan; beren barrika eta danborrak gainean ziztuztela, San Prudentzio auzotik atera eta

Lazkaoko kaleak ederki girotu zituzten, herritarren txaloak lagun zituztela. Bai antolatzaileek eta bai partaideek gauza berbera zioten: lehenengo edizioa izanik, oso ondo atera zela. Maila altua erakutsi zuten parte-hartzaileek eta zeramatzaten uniformeez, zaldizko gizonak, kantinek eta argi-zuziek ekitaldia izugarri dotoretu

eta jantzi zuten. Herritarrek, berriro ere, antolatutako ekimen berrien aurrean ematen duten erantzun bikaina erakutsi zuten. Orain helduen danborrada San Prudentzio festetan tradizio bihurtzea dute helburu, bide horretatik jarraituz gero lortuko den xedea. Zorionak parte hartu zenuten guztioi!



Mikel Garmendia

Parte-hartzailea

“Oso inpresio ona eman dit. Jende asko atera da eta plaza beteta egon da. Umore ona izan da nagusi. Lehenengo urtea izateko bikain joan da, 200 bat pertsona izango ginen guztira. Gainera, guk danbor eta barrilekin bakarrik aterako ginela uste genuen eta argizuzi, zaldi eta guzti jarri dizkigute. Oso polita izan da. Datorren urtean berriz ere animatuko naiz. Espero dut danborrada hau tradizio bihurtzea”.



Jacinto Rodríguez

Participante

“Ha salido muy bien. Hemos tenido muy buena acogida por parte del público, ha habido mucha gente viéndonos. Yo creo que después de tantos ensayos hemos dado la talla. Iremos mejorando año tras año y esperamos que en las siguientes ediciones se anime más gente”.



Marga Gutiérrez

Organizadora

“Al principio estábamos muy nerviosos, pero después ya hemos arrancado, la gente se ha ido animando. Había mucha expectativa entre el público, tal vez de gente que este año no se ha atrevido a apuntarse pero que viendo lo bien que ha salido, la siguiente edición muchos se animarán. He visto a los participantes muy concentrados y con muchas ganas. El balance es muy positivo”.

Jai giroa nagusi San Prudentziotan

SAN
PRUDENTZIO
JAIAK

Amaitu dira jada San Prudentzioak. Zortzi egunez Lazkaoko kaleak festarako eta aisialdirako gune bikainak izan dira. Nahiz herritar nahiz bisitariek Udalak eta herriko zenbait elkartek antolatutako ekitaldiez gozatzeko aukera izan dute. Ekintza ugari izan dira Lazkao festa giroan jantzi dutenak. Eguraldia lagun izan da egun gehienetan eta horrek are eta jende gehiago erakarri du. Jaietako egun indartsuenetarikoa bat den mozorro eguna horren erakusle izan zen, koadrila ugari gerturatu baitzen Lazkaora herriko kaleak beren mozorro original eta trebeekin alaitzeko xedez. Gorriti eta bere abereak; kontzertuak; euskal dantzak; herriko taldeen musika eta dantza emanaldiak; San Prudentzio eguneko ermitarako prozesioa; udal agintarien soka dantza erakustaldia; helduen eta haurren danborrada, eta beste hainbat jarduerak aurtengo San Prudentzioak biribildu dituzte. Orain, hurrengo urteari irrikaz itxoi-tea besterik ez da geratzen; bitartean, hemen agertzen dizkizuegu aurtengoak utzi dituen irudi batzuk, oroigarri gisa. ●



Igerileku estaligabea prest

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiak datorren ekainetik aurrera zerbitzu berri bat eskainiko du: estaligabeko udako igerilekuak. Bi igerileku izango dira, bata 285 m² ko azaleraz gaztetxo eta helduentzat eta bigarrena, sakonera oso txikikoa, haur txiki-entzatzat, 60 m²koa. Igerilekuan ura garrantzitsua bada ere gune berdeak lazkaotarren aisialdirako garrantzi handia duela jabeturik, Udalak hasierako egitasmoan zenbait aldaketa sartu ditu eta gune berdeari beste 2.500 m² ko azalera gehitu dio. Azalera gehitzearekin batera, ekipamenduari ere garrantzia eman zaio eta 12 mahai jarri dira erabiltzaileek bazkaltzera etxera itzuli beharrean, bertan jan ahal izateko. Horrez gain, berdegunean hainbat zuhaitz landatu dira. Igerilekuan kirola egiteko aukera ere izango da, bertan jarri diren 8 elementu estatikoen bidez eta txikienek ere, igerilekuaz gain, izango dute jolaserako lekua, bertan ipiniko diren txirristetan.



Zerbitzua erabiltzeko hautabide zabala

Igerilekuen zerbitzua erabiltzeko hainbat aukera izango dira. Egunean eguneko sarrera izango da aukeretako bat, eta bestea berriz, zerbitzuko bazkidegata egitea. Horrela, gaur egun kiroldegiko bazkidegata dutenek, orain bazkidegata berritzean, igerilekuaren zerbitzu berria bazkidegataren barnean sartzea nahi duten adierazi beharko dute. Horretarako helduen kasuan 27,4€ gehiago ordaindu beharko dituzte eta familien kasuan, berriz, 50€ gehiago. Igerileku estaligabeetarako bazkidegata soilik egiteko aukera ere izango da. Horretarako helduek 45,75€, gazteek 22,80€, eta familiek 66,85€ ordaindu beharko dituzte. Esan bazkidegata egiteko izenemateko orriarekin batera, bi argazki eta ordainketa helbideratu edo ordainketa egindako agiria entregatu behar direla. Azkenik, estali gabeko igerilekuetara sarrera San Jose auzotik izango dela gogorarazi nahi dizuegu eta horretarako bazkideek atea irekitzeko txartela erabili beharko dutela. "ONA" txartela duenak, hau aktibatuz izango du sarrera eta ONA txartela ez duenari, horren eskaera egin eta iritsi bitartean beste txartel bat emango zaio. Estaligabeko igerilekuetarako

sarrera-kontrola kiroldegian abian jarrikoden lehen urratsa izango da. Kiroldegian maiatzean hasi behar den sarrera berria erakitzearekin batera irisgarritasuna bermatzeaz gain sarrera kontrola aldatuko da eta kiroldegiko sarrera txartel bidezkoa izango da ●

“Es posible hacerse socio únicamente de las piscinas. Para ello el/la solicitante debe entregar la hoja de inscripción, dos fotografías y los datos de domiciliación o el justificante de pago”.

KIROLDEGI OSOKO BAZKIDETZA Udako Igerileku estaligabea barne	SOCIO POLIDEPORTIVO PLUS Incluye piscina descubierta de verano	
	URTEKOA Anual	UDAKOA Estival
HELDUA ADULTO	118,75 €	82,35 €
GAZTEA MENOR	59,50 €	41,10 €
JUBILATU - PENSIONISTA JUBILADO-PENSIONISTA	89,25 €	61,85 €
FAMILIARRA FAMILIAR	184,00 €	125,30 €
JUBILATU - PENSIONISTA FAMILIARRA JUBILADO O PENSIONISTA FAMILIAR	130,60 €	90,15 €

UDAKO IGERILEKUKO BAZKIDETZA SOCIO DE LA PISCINA DE VERANO	
	UDAKOA Estival
HELDUA ADULTO	45,75 €
GAZTEA MENOR	22,80 €
JUBILATU-PENSIONISTA / JUBILADO-PENSIONISTA	34,35 €
FAMILIARRA FAMILIAR	66,85 €
JUBILATU-PENSIONISTA FAMILIARRA JUBILADO-PENSIONISTA FAMILIAR	50,05 €



Santa Magdalena Plaza,

LA RECIÉN URBANIZADA PLAZA DE SANTA MAGDALENA, QUE SE INAUGURARÁ EL PRÓXIMO DÍA 14 SE HA CONVERTIDO EN UN NUEVO ESPACIO DE CONVIVENCIA PARA LOS Y LAS LAZKAOTARRAS. ANTES DE LAS OBRAS DE REMODELACIÓN, ESA ZONA SE ENCONTRABA EN BASTANTE DETERIORADA. AHORA, TRAS LOS TRABAJOS DE REHABILITACIÓN, CUMPLE CON LOS REQUISITOS DE ACCESIBILIDAD, AL TIEMPO QUE SUPONE UNA IDÓNEA ANTESALA AL CENTRO CULTURAL ARERIA.

Orain arteko Santa Madalena plazak ezer gutxi du oraingoaren antza. Lehen, bere azaleraren zatirik handiengan erabilgarritasuna ez zen azalera zen. Horregatik, aurkezten zituen zirkulazio zailtasunei gehituta, bizilagunek gutxi erabiltzen zuten lekua zen. Premisa horretatik abiatuz, Udalak arazo horiek konpontzeko, plazaren eraberritzean herritarrek erabili zezaketan leku berde eta argitsua sortzeko irizpidea jarraitu zuen, irisgarritasuna ere kontutan hartuta –Santa Madalenaren berriztapenean oinezkoen erosotasuna hartu da kontutan eta plazaren puntu desberdinak elkarri konektatzen dituzten bideak egin dituzte–. Auzokoak beren portaletara eta lan-tokietara iristeko erraztasuna jarri diete, mailen arteko desberdintasuna ekiditen duten malden bitartez, modu horretan plaza integratuta geratu delarik.

Antesala de Areria

Tras la ejecución del edificio cultural Areria, este edificio arquitectónicamente singular que es utilizado habitualmente por muchos lazkaotarras, pedía un entorno adecuado a su uso. Así, en el diseño de la plaza fue sustituida la carretera que le daba frente, por una antepuerta peatonal, amplia y de proporciones adecuadas a la escala del edificio, que además de la función integradora peatonal entre el edificio y la plaza, podrá ser un marco para posibles actuaciones exteriores. Como botón de muestra, durante la tarde del día de la inauguración, el próximo viernes día 14, se han organizado juegos infantiles. Por esa necesidad de un espacio amplio, en el que la gente pudiera quedar y reunirse antes y después de los actos, se diseñó una zona de pavimentación dura, de tránsito peatonal, que sirviese de antesala a Areria, creando un espacio de reunión, estancia y espera. En definitiva, un espacio de convivencia.

“La plaza será un punto de reunión, estancia y espera para los y las lazkaotarras y servirá de antesala a Areria”

Bereizitako bi gune

Santa Madalenaren Plazaren urbanizazio lanetan bertako auzokoan ongizatea bermatuko duten irizpideak jarraitu dituzte une oro. Zentzu horretan, bizilagunen pribatutasuna kontutan hartu da eta plazaren berregituratzean argi eta garbi bereizten diren bi gune lortu dira: batetik, agerikoagoa den eremua (Areria eraikuntzaren aurrekoa) eta, bestetik, etxebizitza multzoen arteko espazioa, pribatuagoa. Horrela bai herritarrentzat eta baita auzokideentzat aproposak diren bi esparru lortu dira.

Santa Madalena plaza berria, gertutik

Kostua. Foru Aldundiak 350.000 euroko diru-laguntza eman zion Lazkaoko Udalarari eraberritze lanak egiteko

Ezaugarriak.

- Urbanizatutako azalera 2905m²koa da, horietatik 658m² lorategiak.

Onurak.

- Bertako etxebizitzek argitasun handiagoa jasotzen dute.
- Plazaren puntu desberdinak elkarri konektatuta daude, bertakoan irisgarritasuna bermatuz.
- Bizilagunei eta bertan aurkitzen diren dendetako jabeek beren etxe atarietara eta lokaletara sarbide zuzen eta irisgarria eskaintzen die.
- Areriak behar duen ate-aurrea du. Horrela, eraikinera sarbide zuzena lortu da eta itxaroteko gune aproposa sortu da.
- Areria barruan kultur ekintzak egiteaz gain, kanpoan ere mota askotako kultur jarduerak eta emanaldiak eskaintzeko aukera ematen du, kontzertuak eta dantza erakustaldiak, esaterako.
- Herritarrek eta auzokoek gozatzeko eta bizikidetzat sustatzeko gune berria dugu.



espacio de convivencia



Javier Gutiérrez

Encargado de la ferretería Gurea

“La plaza le da vida al barrio. Está todo más comunicado y se ha mejorado la accesibilidad. Además, el hecho de que haya garajes ayudará a que haya más movimiento en la zona. Antes estaba más aislada, con jardines y árboles; ahora, espero que la plaza dé más vida al entorno, ver a más gente paseando por aquí. La espera ha merecido la pena. Al negocio le beneficiará de forma positiva porque ahora pueden acceder aquí desde cualquier lado”.



María Ángeles Hernández

Dueña del bar

“Durante los últimos 10 años el bar ha tenido muy buenos momentos, pero también hemos pasado algún bache. Las obras de la plaza nos han afectado, ha sido duro y nos ha repercutido negativamente, pero desde que se acabaron los trabajos se nota más movimiento. Espero que Areria vaya funcionando e invito a la gente a que se anime a conocer esta zona y los bares de aquí. La terraza ha quedado muy amplia y bonita, con vistas al cine”.

“Plaza eraberritzean irisgarritasun irizpidea kontutan hartu dute”



**INAUGURACIÓN:
viernes, día 14**

- A las 12:00 horas, inauguración oficial.
- Durante la tarde, de 17:00 a las 18:30 horas, juegos infantiles.



Santa Madalenako garajeak, salgai

SANTA MADALENA PLAZA BERRITZEAREKIN BATERA, UDALAK INGURUAN GARAJERIK EZ ZEGOELA IKUSIZ, LUR AZPIKO APARKALEKUAK BURUTZEKO ERABAKIA HARTU ZUEN. HORTAZ, PLAZAKO LANEKIN BAT EGINDA, HORREN AZPIAN 36 APARKALEKU EGIN DIRA. PLAN ESPEZIALAREN GARAPENARI ESKER, GARAJEAK JABETZAN EROSI AHAL IZANGO DIRA.

Santa Madalenako urbanizazioa Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin garatzea erabaki zenean urbanizazio azpian garajeak egokitzeko aukera ikusi zen eta gaur egun errealitate dira jada garaje horiek. Plaza berriaren lanak hasi zirenean, Lazkaoko Udalak beharrezkotzat jo zuen lur azpiko garajeak hartuko zituen eraikin bat aurrera eramatea, inguruari ahalik eta gutxiena erasateko. Plazaren behealdeko espazioa gehienera maximizatu ostean –beharrezko segurtasun neurriak aintzakotzat hartuta– 36 garaje itxi gaitu dituzte, handiak eta erabiltzeko eta marniobratzeko errazak. Barneko distribuziorako bide nagusi bat dute eta bertara sartzeko sarbidea Santa Madalena kalean kokatu dute.

Datos de interés

- **36 plazas.** Todas ellas cerradas, de las que 15 tienen 18, 86 m² cerrados (3,13 x 6,02), otras 15 tienen entre 16 y 17 m², 1 plaza de 45 m² y otras 5 entre 18 y 32 m².

- **Interior.** Los pasillos de circulación tienen entre 5 y 6 metros de anchura.

- **Equipamiento.** El garaje tiene sistema de ventilación automático, detección de incendios, puerta de acceso de 2,50 m libres y la altura ronda los 2,90.

- **Acceso peatones.** Se ha previsto una salida peatonal en el centro de la plaza.

- **Acceso coches.** Se ha ubicado en la calle Santa Madalena.

- **Precios.** Desde 24.000€ (+ IVA).

Puertas abiertas

Próximo viernes, día 14, de 16:30 a 20:00 horas.

Los interesados en comprar una plaza de garaje, podrán acercarse al lugar para conocer de cerca las 36 plazas.



Si desea adquirir alguna de las plazas de garaje póngase en contacto con Aitor:
647 832 283

Instantánea de los garajes. En total son 36 plazas, todas ellas cerradas.



Inbertsiorik onena, industrialdea

LAZKAOKO INDUSTRIALDE BERRIA ERREALITATE BIHURTZETIK GERO ETA GERTUAGO DAGO. KANPANDEGI-AMEBIKO GUNEAK LANA ETA ABERASTASUNA SOR DITZAKE ETA.

Krisi garai honetan inbertsioa eta gastua zer diren ondo bereizi behar da. Gastu bat egiten denean ez du fruiturik ematen; inbertsioak, aldiz, gerora bere fruituak emango ditu. Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da une honetan lana eta aberastasuna sor ditzaketan azpiegiturak sendo bultzatzea.

Lazkaoko Kanpandegi eta Amebiko industrialdeak etorkizunerako apustua dira. Hirigintza garapen dokumentuak aurrera doazen neurrian gero eta gertuago dago industrialde berriaren errealitatea. Ildo horretatik, Kanpandegi eta Amebiko eremuetan sortuko diren 30.620m² eraikigarriez gain -horietatik 19.500m² eta Kanpandegin 11.120m² Amebi inguruan-, bereziki nabarmentzekoa da Meandron eraikiko den 19.823m²-ko gune berdea, etorkizunean herritarren gozamenerako izango dena.

Lazkaoko Udalak Goierri Beheko Industrialdearekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Kanpandegiko eremuko 19.500m² eraikigarrietatik gehiengoak sustapen publikokoa izango da. Eremu horretan egingo diren pabiloak bi mo-

tatakoak izango dira: alde batetik, bi alturatan banatutako 15.000m²-ko guneak eta bestetik altura bakarreko 4.500m²-ta-koak.

Industrialde berriak mugikortasun egoki baten alde egingo du

Industriagune berria egitean mugikortasuna aintzat hartu da. Horrela, bertan joango den biribilgunea diseinatzeko garaian, bidegorria GI-120 bide azpitik pasatzea aurreikusten da, hain zuzen ere Senpereko biribilguneari eman zaion antzeko soluzio bat emanez.

Herriko eta inguruko enpresei deialdia

Lazkaoko Udalak deialdi bat egiten die Lazkaoko eta Goierriko enpresei Goierri Beheko Industrialdearekin edo Udalarekin harremanetan jar daitezen, behar duten informazioa jaso dezaten.

El Ayuntamiento de Lazkao hace un llamamiento a las empresas para que se pongan en contacto con Goierri Beheko Industrialdea y el Consistorio para recabar más información:

- **Goierri Beheko Industrialdea. Carlos Urrestarazu (Gerente) 607150660**
- **Ayuntamiento de Lazkao. 943088080**

La zona industrial, la mejor inversión

En estos tiempos de crisis, es imprescindible diferenciar de forma correcta qué son los gastos y qué las inversiones. No hay duda de que la nueva industrialdea es una inversión con prospección al futuro. Es por ello que hoy, más que nunca, se ve necesaria una infraestructura que traiga riqueza y trabajo. La zona industrial de Kanpandegi y Amebi es una apuesta de futuro; de hecho, está cada vez más cerca de ser una realidad. Hay que reseñar que, además de los 30.620 m² edificables -de los cuales 19.500 se ubican en Kanpandegi y 11.120 en Amebi-, Lazkao contará con 19.823 m² de zona verde para el futuro disfrute de los lazkaotarras. Gracias al acuerdo firmado entre el Ayuntamiento de Lazkao y Goierri Beheko Industrialdea, la mayoría de los 19.500 m² edificables en Kanpandegi serán de promoción pública. Los pabellones que se construirán en dicho espacio serán de dos tipos: 15.000 m² divididos en dos alturas y otros de una sola planta, en 4.500 m².



Industrialde berria eraikiko den guneen planoak.



Lazkao konpostatzeko prest

LAZKAO INTRODUCIRÁ ENTRE JUNIO Y JULIO EL CONTENEDOR MARRÓN EN SUS CALLES. ESTE SISTEMA PARA LA RECOGIDA DE MATERIAS ORGÁNICAS SERVIRÁ PARA HACER COMPOST Y REUTILIZAR ESOS BIORRESIDUOS PARA LA JARDINERÍA –CERRÁNDOSE ASÍ EL CÍRCULO DE RECICLAJE–. PARA ESTO ES IMPRESCINDIBLE LA COLABORACIÓN DE LOS Y LAS LAZKAOTARRAS. TENEMOS QUE HACER UN ESFUERZO COMÚN PARA QUE NUESTROS SUCESOSES SIGAN PUDIENDO HABITAR ESTE PLANETA. EL AYUNTAMIENTO, QUE MUESTRA SU COMPROMISO Y APUESTA POR EL COMPOSTAJE Y SUS BENEFICIOS, INVITA A TODOS LOS LAZKAOTARRAS A USAR ESTE NUEVO SISTEMA, EXITOSO EN MUCHOS PAÍSES DE EUROPA.

Beirak birziklapenaren aro berria ireki ondoren, papera, kartoia, ontziak, pilak, arropak edota sukaldeko olioak birziklapenaren munduan parte hartzen hasi ziren. Orain, beste elementu garrantzitsu bat gehitu zaio zerrenda horri: etxeetan biltzen den material organikoa. Hondakin organiko horiek birziklatuz konposta egiten da, ondoren lorategietan erabilgarri izango den ongarri bat osatuz. Lazkaoko familiek edukiontzi marroi hauekin

“Hondakin organikoetatik, begetalak, prestatu gabeko janariak eta inausketa eta lorategi hondarrak bakarrik bildu behar dira”

1

ZABORRAREN EDUKIONTZIA



aukera paregabea dute birziklapenaren alde beste urrats bat emateko. Lazkaoko Udalak eta Sasieta Mankomunitateak elkarlanean herriko hainbat gunetan zenbait edukiontzi jarriko dituzte (asmoa herri guztian jartzea da, kaskoan behintzat). Horrez gain, edukiontzia erabiltzera animatzen direnei etxeko hondakinen bilketa errazteko kit bat emango zaie, hots, 10 litroko ontzi aireztatua, poltsa konpostagarriak (urte beterako), giltza bat eta informazio liburuxka bat. Edukiontzi berri hauetan parte hartzeko giltza beharko da. Zergatik? Konposta egin ahal izateko oso garrantzitsua da botatzen den materiala garbia izatea. Horregatik, norbaitek erratuta, bilketa ez duelako ezagutzen edo utzikeriaz zaborra nahasian ez botatzeko edukiontzia giltzatuta egongo da.

Sistema eroso eta erabilerraza

Behin edukiontziak kalean eta norberak birziklatzeko behar duen kit-a edukita, edukiontzian zein materia organiko mota bota daitekeen jakitea funtsezkoa da. Hasieta batean Lazkaoko Udalak begetalak eta prestatu gabeko janariaren bilketa eskatuko du, inausketa eta lorategi hondarrekin batera; guztira hondakin organikoen % 90 (materia hauekin kalitate handiagoko konposta lortzen da eta beraz lorezaintzan eta paisajismoan erabiltzeko erraztasun handiagoa lortzen da). Behin poltsa konpostagarria beteta, edukiontzira joan, giltzarekin ireki eta botatzea besterik ez da geratzen. Sistema eroso eta erabilerraza da. Dena den, Udalak herritarrei informazioa modu argian helaraziko die, kalitatezko zerbitzua ahalik eta errazen eskainiz ●

“Erabiltzaileei kit bat emango zaie: ontzi aireztatua bat, poltsa konpostagarriak eta edukiontzia erabiltzeko giltza bat. Banaketa kanpaina ekainean hasiko da eta udara aurretik edukiontziak kalean izango dira”

Kit para usuarios del contenedor de compost



Parte-hartzeko izenematea

- Telefonoz (943 16 15 55) eta Internet bidez. (www.sasieta.net).
- Etxe-atari barnean jarriko diren karteletan.
- Kalean jarriko diren hainbat informazio puntutan.

“El contenedor marrón servirá para hacer compost y reutilizar esa materia orgánica en los jardines de Lazkao”

2 BEIRAREN EDUKIONTZIA



3 PAPERAREN EDUKIONTZIA



4 PLASTIKOAREN EDUKIONTZIA



5 KONPOSTAREN EDUKIONTZIA



BI HITZETAN

Udaleko berriak, zinea... zuzenean jasotzeko aukera duzu!



Eta jaso zure posta elektronikoa herriko azken albisteak edo/eta agenda eta aisialdirako dugun eskaintza zabala

Lazkao Udaren helburua herritarrei etengabeko zerbitzua eskaintzea da. Horregatik web gunea eraberritzeko lanean dihardu lazkaotarrei ahalik eta zerbitzu gehien modu azkar eta erosoenean eskaintzearen. Azken aldian, Udalak urratsak eman ditu teknologia berriei moldatu eta informazio gizar-teak eskaintzen dituen abantailak bereganatzeko. Lan horren emaitza gisa, gaur egun herritarrek www.lazkao.net orriaren bitartez Lazkao informazio zabala aurkituko dute bertan, hots, Udaren inguruko informazio zehatza, herriari buruzko datu interesgarriak, turismoaren inguruko informazioa, agenda eta on-line zerbitzua, besteak beste.

“Cada semana se sortearán dos entradas para el cine entre los suscriptores”

Recibe la agenda y las últimas noticias en tu correo

Una de las actuaciones más destacadas llevadas a cabo en la web municipal es la creación de un boletín al que las lazkaotarras pueden suscribirse con el fin de recibir en su correo electrónico la agenda de actividades (cine, teatro, deporte, danza...) que acontecen en Lazkao, así como las noticias más recientes. Esa iniciativa pretende ser una herramienta accesible, dinámica y fácil de utilizar. Además, todos las lazkaotarras que se suscriban a ese nuevo servicio, podrán conseguir dos entradas para el cine, a través del sorteo que se realizará semanalmente entre todos ellos. ●

NOLA HARPIDETU?

Sar zaitze www.lazkao.net helbidera eta orri nagusian ageri den “harpidetu buletinera” ganean klik egin. Bertan zure izen-abizenak eta helbide elektronikoa sartu behar dituzu eta jaso nahi duzun informazioa –zinea edo berriak, edota biak– aukeratu. Azkenik, informazio hori euskaraz edo gazteleraz helarazteko aukera ematen da; bietako bat aukeratu. Amaitzean, “bidali” botoia sakatu eta harpidedun izango zara!

AGENDA

MAIATZA

- **15, larunbata:** Futbol partidak. Goren-goien maila-preferente: Lazkao-Amaikak Bat, Harizti Haundi futbol zelaian./Jubenilen kopa: Lazkao-Union Txiki Touring.
- **21, ostirala:** Aiala, Orobione eta Kantaka abesbatzen emanaldia, San Migel Parrokian, 20:00etan.
- **22, larunbata:** Futbol Partida: Kade-teen kopa, Lazkao-Billabona, Harizti Haundin.
- **28, ostirala:** Pantxika Txinparta Ederra Zalaparta, Azeria Kultur gunean, 17:30etan.
- **29, larunbata:** Opera gaua, kantaka eta Xanbe abesbatzaren eskutik.
- **30, igandea:** Mendi irteera: Gorbea.

EKAINA

- **4, ostirala:** Piano bat bertsoan III, Ainhoa Ansa eta Astiasaran, Azeria Kultur gunean, 21:30etan.
- **5, larunbata:** Asteburuko mendi irteera Demandako mendilerroa (Pradoluengo).
- **11, ostirala:** Lazkaotxiki musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua, Plazako oholtzan, 18:30etan.
- **18, ostirala:** San Benito ikastetxeko antzerki taldearen emanaldia "Munduko Plana", Azeria Kultur Gunean, 19:30etan.
- **20, igandea:** Mendi irteera: Malkorri (Aralar).
- **23, asteazkena:** San Juan su bezpera dantzari eta trikitilariak, herriko plazan, 22:00etan.

LAZKAOTAR guztien esku dago

Lazkaotik kanpo bizi diren herritarrek Lazkao Plaza udal aldizkaria bi hilabetero euren etxeetan jaso nahi badute edo, Lazkaon bizi arren, norbaiti ez bazaio iristen, jar dadila harremanetan Udaleko Kultura Sailarekin:



Telefona: 943 08 80 80



Helbide elektronikoa: udala@lazkao.net